**UDAL-BATZARRA 07/08**

**UDAL-BATZARRAK, 2008ko URRIAREN 2an EGINDAKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

**PARTAIDEAK:**

**ALKATEA:**
Pedro Mª Peñagarikano Labaka

**ZINEGOTZIAK:**
Ainitze Etxaniz Iraola
Gorka Otxoa-Aizpurua Arrizabalaga
Gregorio Zuaznabar Urkola
Eider Garmendia Arrieta
Alazne Ruiz Luluaga
Fidel Azpiroz Arrillaga
Jose Ignacio Otermin Garmendia

**IDAZKARIA:**
Nekane Agirresarobe Etxeberria

ANOETAko Udaletxean, 2008ko urriaren 2an iluntzeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, ohiko Bilkura egin asmoz Pedro Mª Peñagarikano Labaka alkate jaunaren mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik; Joseba Agirrezabala Ayestaran zinegotzia ez da etorri eta ez du arazorik adierazi. idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria andrea.

**1.- 2008KO UZTAILAREN 3AN OSPATURIKO BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik ba dagoen.

Inorrek ez duela ezer esatekorik kontutan izanik, partaideek aho batez erabakitzen dute uztailaren 3an ospaturiko akta onestea.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

Ante la negativa, se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar el acta celebrada con fecha 3 de julio de 2008.

**2.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA, 293 ZENBAKITIK IRAILAREN 30ª ARTE EGITEN DIRENAK.**

Alkate jaunak galdetzen du ea puntu honi buruz zerbait esatekorik ba dagoen.

El Sr. Alcalde pregunta a los miembros de la Corporación si quieren hacer alguna manifestación sobre el punto.

Jose Ignacio Otermin jaunak zera galdetzen du:

*“410 eta 348 dekretuak. Seguruko ordainketak dira. Bere garaian guk jarri genuen martxan eta orain proposatzen dugu konkurtsora ateratzea. Seguru asko ditugu eta agian egoerak aldatu egin dira, atzeratuak geratu dira. Konkurtso bidez posible izango zen mamia naiz prezioa hobetzea”.*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*“Ados, hor zenbait seguruen berritzea hil honen amaieran tokatzen zaigu. Orain egin diren seguroak izan dira, alde batetik, erosi den auto berriarena. Atera egin behar genuen kontzesionariotik eta segururik gabe ez genuen egin nahi; patrol zaharraren seguruarengatik diru bat jaso dugu, erabili ez dugun zatia. Beste segurua ikastolarena da. Mankomunitatea desegitean, edifizioaren segururik gabe zegoen, erabiltzaile bezala ikastolak badu egina baina ez eraikinarena. Galdezka ibili gara noren erantzunkizuna den hori baina inork ez digu esaten eta ez genuen eduki nahi ezer gabe. Begiratko dugu eta agian denentzako oferta bat eskatudu dugu”.*

Jose Ignacio Otermin jaunak zera adierazten du:

*“Badakit Andres hasi zela balorazioak egiten”.*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*“Egin behar duguna da edifizioen inbentario bat, egon diren aldaketak zeintzu izan diren ... horren arabera eskatzen hasiko gara ofertak”.*

Jose Ignacio Otermin jaunak zera adierazten du:

*“Seguruak eduki behar dira noski. Kotxe berriari buruz, badakigu nola zegoen bestea, nahiko aguantatu du, hori da egia. Bakarrik komentatu, berria erosi aurretik landu edo begiratu da beste posibilitaterik gasoila izan beharrean gasa, biodiesela, mixtoa etab. Landu da edo izan da modeloen hiru aurrekontu eskatu eta hartu bat?”.*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*“Egia da modelo hauek badaudela eta ez dugula azterketa sakonik egin. Ikusita lehengo kotxearen egoera negargarria eta Juanjoren fisikoa zalantzan jartzen genuela noiz nahi hiru eskaera eskatu eta ez genuen azterketa gehiagorik egin”.*

Jose Ignacio Otermin jaunak zera adierazten du:

*“Dena dela, ez da egunero kotxe bat erosten eta hau zen momentua horrelako azterketa egiteko. Batzutan entzuten da, Donostian autobusak ere jarri dituztela biodieselarekin...”.*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*“Ez dakit mota hauetako kotxeak biodieselean badauden. Tolosan munizipalak dabiltzatena kotxe normala da, kamioneta estiloan ez dakit badagoen”.*

Jose Ignacio Otermin jaunak galdetzen du:

*"333 dekretua. Ikastolako obrak. Iganderako bukatuko dituzte?. Gauza bat, hor aipatzen da obrak hasi aurretik Eusko Jaurlaritzako baimena eskatzen zaie. Pentsatzen dut baimen hori ez dela gauza formala bakarrik. Eusko Jaurlaritzak obra berri hori ikusiko du ea egokia den umeentzat; gehien bat seguritate aldetik.Ongi iruditzen zait hori eskatzea baina ekarri dute, gainean gaude? Ez dute problemik jarri? Dena ongi dago? Gure ere lasaiago egoteko".*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*"Hemen ez dute aurkeztu. Ez dakit eskatu duten. Dekretua eman zitzaien, legeak horrela eskatzen duelako eta ebazpen horretan horrela dio".*

Jose Ignacio Otermin jaunak adierazten du:

*"Horregatik, seguritatea bermatzeko eta jakiteko gauzak ongi eginda dauden ala ez".*

Udaletxeko Idazkariak adierazten du:

*"1996 urtean, Eusko Jaurlaritzak Herri Irakaskuntza mankomunitateari ikastolako eraikina erabiltzeko baimenean baldintzariko bat azaltzen zen obrak egin behar izanez gero Eusko Jaurlaritzari baimena eskatu beharko zitzaiola; horregatik eskatzen zaio alkatetzaren ebazpenean".*

Jose Ignacio Otermin jaunak galdetzen du:

*"307 dekretua. Harritu egiten digu nola egiten den horrelako alokairu bat pertsona partikular bati; ez diogu helbururi ikusten".*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*"Honek enpresa txiki bat dauka eta alkilerrean zegoen lokaletik atera egin behar zuen. Gizarte Zerbitzuetatik premia berezia bezala 6 hilabeterako alokatu zaio beste soluzio bat bilatu bitartean. Bere bizibide bakarra hori da eta eutsi egin nahi dio. Salbuespen bezala eta abendu bitarte egin zaio.*

Jose Ignacio Otermin jaunak adierazten du:

*"Laguntza soziala bezala bada ez dago inongo problemik, horretarako daude. Baina horrela ikusita da, partikular baten eskaera eta horrelako beharra ez genuen ikusten, antezedente bat markatzen bait du. 210 euro osoa da?".*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*"Bai, alkiler sinboliko bat da".*

**3.- "ITURTXULO" JABEEN ZERRENDA ONARTZEA.**

A19 "Iturtxulo" areako 58 Babes Ofizialeko etxebizitzak Bildo 5, S. Coop

Visto el expediente de adjudicación de 58 viviendas de protección oficial en el

enpresari esleitzeko egin den espedientea ikusi ondoren.

Area A19 “Iturtxulo” a la empresa Bildo 5, S.Coop.

Babes Ofizialeko 58 etxebizitzak eta bakoitzaren eranskinak (garaje zein trastelekuak) sustapen pribatukoak, esleitzeko zozketa publikoan onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiz, 2004ko apirilaren 29ko akordioa ikusirik.

Visto el acuerdo plenario de fecha 29 de abril de 2004 en el que se aprueba la lista definitiva de aspirantes admitidos y excluidos al sorteo público para la adjudicación de 58 viviendas de VPO, junto a sus correspondientes anejos: garajes y trasteros.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailak bidaliriko idatzia ikusi ondoren, non, Bildo 5, S. Coop. sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzetako jabeen zerrenda eransten den. Beti ere, Lurralde-Ordezkaritzak bisaturiko salerosketa-kontratu pribatuen arabera.

Visto el escrito del departamento de vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco al que adjuntan relación de adquirientes de las viviendas de protección oficial promovidas por Bildo 5, S. Coop a tenor de los contratos privados de compra-venta visados por la Delegación Territorial.

2008ko ekainaren 17an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailak bidaliriko idatzia ikusi ondoren, non, salerosketa-kontratuak edo babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko dokumentuak bisatu aurretik, Lurralde-Ordezkaritzak egiaztatzen duen erosleak edo etxebizitzen esleipedunak babes ofizialeko etxeetako onuradun izateko indarrean dagoen araudiko baldintza guztiak betetzen dituztela, beraz, kasu hauetan bakarrik sinatzen dira aurkezturiko kontratuak.

Visto el escrito del Delegado Territorial del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco de fecha 17 de junio de 2008 en el que señala que con carácter previo al visado de los contratos de compraventa o documentos de adjudicación de viviendas de protección oficial, la Delegación verifica que los compradores o adjudicatarios de las viviendas cumplen todos los requisitos que la normativa vigente exige para ser beneficiario de VPO, de manera que sólo en este caso se visan los contratos presentados.

Alkate jaunak zera adierazten die bertaratutakoei:

*“Badakizue, Iturtxuloko etxe gehienak eskrituratu dituzte. Hasera batean zerrenda bat zegoen, 2004 urteko udalbatzak onartua; ondoren aldaketa batzu egon dira eta erregistrotik eskatzen ziguten udalak onartutako zerrendaren bat inskribatu egin ahal izateko. Bidali zitzaien 2004 urtean onartutakoa baina gaur egun aldaketak baditu. 2008ko apirilaren 23an, Eusko Jaurlaritzak badaliriko idatzian oraingo jabe berriak zeintzu diren agertzen dira. Inskribatu ahal izateko gure proposamena da lista berri hau onartzea. Aldi berean, horrelako zerbait ere onartu behar dugu gureak eskuratzeko. Lehengo astean egin genuen Bildo 5ekoekin bilera bar hor zeuden defizientziak beraiek zuzen zitzatela eskatuz eta horren*

*arabera gero guk rezepzionatu obra. Hurrengo pausoa egin beharko genuke plegu batzuk onartu, garajeak saldu ahal izateko.*

Jose Ignacio Otermin jaunak zera galdetzen du*:*

*"Bildo 5en aldetik, dokumentazioa tramitatzeko daramaten mantxotasunak harritu egiten nau!".*

Alkate jaunak zera erantzuten du:

*"Gu ere ez gaude lasai, bukatu nahi dugun gai bat da. Besteak beste, hor sartu direnak erroldatu egin nahi dute eta lehen erabilera baimena ez dutenez ezin dute. Eskatzen dituzten zenbait gauza ezin dira egin, ezin zaielako autorizaziorik eman. Horregatik esaten dizuet, komisioko ardunadunarekin, Manex Arrietarekin egon ginen eta esan genion gauza batzuk tramite utsak zirela, beste batzuk barnean soluzionatu zitezkela. Andresek esaten zuena, aparkamentuaren arazoa hirigintzan komentatu izan dugu. Manexek kompromezua hartu zuen lehenbaitlehen gauza hauek likidatzeko, beraiek ere gogoa dute.*
*Aipatzen zen beste gauzatariko bat zuhaitz asko ez direla itsatsi izan da; erabaki dezatela ze zuhaitz mota behar ditugun. Hemen ezin gara hasi hori onartu eta hurrengo egunean arbolak aldatzen. Guzti hori esplikatu zitzaion, ulertu zuen eta onartu, berehalakoan soluzionatzeko asmotan joan zen. Giltzak maiatzean jaso zituzten eta batzuen aldetik horrelako relaje bat egon da".*

Jose Ignacio Otermin jaunak zera galdetzen du*:*

*"Aurreko plenoan ere komentatu genuen pleguan azaltzen zen atzerapenengatiko isuna. Orduan oso atzeratua zijoazten orain zer esanik ez. Ze asmo dago horren inguruan?".*

Alkate jaunak zera erantzuten du:

*"Ez dugu isunaren gaia tratatu. Momentu honetan gure preferentzia buka dezatela da eta gero ikusiko dugu. Horrelako gauzak tartean sartuz luzatu egin daiteke eta bukatu egin nahi dugu".*

Partaideek aho batez erabakitzen dute:

Lehena.- A19 "Iturtxulo" Arean ,Bildo 5, S. Coop. sustaturiko babes ofizialeko etxebizitzen jabeen zerrenda onestea, beti ere, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bisaturiko salerosketa-kontratu pribatuen arabera.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos:

Primero.- Aprobar la siguiente relación de adquirientes de viviendas de VPO en el area A19 "Iturtxulo" promovida por Bildo 5, S. Coop y a tenor de los contratos privados de compraventa visados por la Delegación Territorial del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

| **Etxebizitza / Vivienda** | **Esleipenduna / Adjudicatario** |
|---|---|
| A Blokea, Bajo A | Calvo Tome David. |
| A Blokea, Bajo B | Esnaola Gorostidi Beatriz |

| | |
|---|---|
| A Blokea Bajo © | Gonzalez Lacunza Nora<br>Rosas Santos Santiago |
| A Blokea, Bajo D | Aldasoro Saizar Jose Maria |
| A Blokea, 1ºA | Iturrioz Mendizabal Iñigo |
| A Blokea, 1ºB | Otaegui Echave Miguel |
| A Blokea, 1º© | Ortiz Sanchez Jose Manuel |
| A Blokea, 1ºD | Artola Jauregui Juan Maria |
| A Blokea, 2ºA | Errazquin Luluaga Aitor |
| A Blokea, 2ºB | Otaegui Echave Ana Jesus |
| A Blokea, 2º© | Relloso Gorostidi Oscar |
| A Blokea, 2ºD | Ochoa-Aizpurua Agirrezabalaga Gorka |
| A Blokea, 3ºA | Morea Aranzasti Aiala<br>Zumeta Mayoz Josu |
| A Blokea, 3ºB | Igarategui Gonzalez Garbiñe<br>Berasategui Martinez Joseba Mikel |
| A Blokea, 3º© | Prieto Loidi Maria Ester<br>Sanchez Martinez Francisco |
| A Blokea, 3ºD | Barainca Cisneros Jose Luis |
| A Blokea, Teilatu azpia A | Goiaran Oreja Gorka |
| A Blokea, Teilatu azpia B | Gurruchaga Aranzasti Aitor |
| A Blokea, Teilatu azpia © | Fernandez Martinez Sergio |
| A Blokea, Teilatu azpia D | Gonzalez Carlos Iñigo |
| B Blokea, Bajo A | Garcia Calvo Jokin |
| B Blokea, Bajo B | Movilla Elorza Maria Cristina |
| B Blokea Bajo © | Goikoetxea Amondarain Yon Ander |
| B Blokea, Bajo D | Pacheco De Arriba Antonio Manuel |
| B Blokea, 1ºA | Aldasoro Saizar Ignacio Maria |
| B Blokea, 1ºB | Echarri Lizarribar Ainhoa<br>Iraeta Garmendia Pedro |
| B Blokea, 1º© | Blanco Iraola Gorka<br>Blanco Iraola Naiara |
| B Blokea, 1ºD | Colas Gines Olga<br>Colas Gines Jon Ander |
| B Blokea, 2ºA | Iglesias Sanchez Artur |
| B Blokea, 2ºB | Olano Manzano Bakarne<br>Aseguinolaza Garmendia Xabier |
| B Blokea, 2º© | Zabaleta Arbiza Idoya |
| B Blokea, 2ºD | Relloso Gorostidi Miren Amaia |
| B Blokea, 3ºA | Sanchez Martin Oscar |
| B Blokea, 3ºB | Bengoa Ugartemendia Unai |
| B Blokea, 3º© | Perez Ibarguren Eneko |
| B Blokea, 3ºD | Acosta Martin Ibon |

| | |
|---|---|
| B Blokea, Teilatu azpia A | Arrieta Gorostiaga Manex |
| B Blokea, Teilatu azpia B | Aristondo Alberdi Andoni |
| B Blokea, Teilatu azpia © | San Sebastian Aguirre Alicia<br>Corral Sanz Diego |
| B Blokea, Teilatu azpia D | Gonzalez Salomon Maria Luz<br>Parra Clemente Miguel Angel |
| © Blokea, Bajo A | Caballero Ropero Ignacio<br>Ceberio Hualde Amaya |
| © Blokea, Bajo B | Arteaga Urkola Joseba |
| © Blokea, 1ºA | Munduate Martinez Bixente<br>Zabala Garmendia Larraitz |
| © Blokea, 1ºB | Lasa Uzcudun Estibaliz<br>Peñalver Ibarguren Jose Diego |
| © Blokea, 1º© | Davila Fernandez Manuel |
| © Blokea, 1ºD | Azurmendi Huici Maria Isabel<br>San Sebastian Aguirre Jesus |
| © Blokea, 2ºA | Aldaz Vicente Josu<br>Murua Ferrero Sandra |
| © Blokea, 2ºB | Yurrita Murua Iban |
| © Blokea, 2º© | Iturrioz Urkidizar Iñaki |
| © Blokea, 2ºD | Calvo Tome Silvia |
| © Blokea, 3ºA | Echarri Lizarribar Miren Jaione |
| © Blokea, 3ºB | Mendizabal Azurmendi Maider |
| © Blokea, 3º© | Ortiz Sanchez Francisco Javier |
| © Blokea, 3ºD | Allue Gines Ignacio |
| © Blokea, Teilatu azpia A | Garcia Vicario Jesus Maria |
| © Blokea, Teilatu azpia B | Artola Gaztañaga Iker |
| © Blokea, Teilatu azpia © | Anoetako Udala |
| © Blokea, Teilatu azpia D | Arrieta Gorostiaga Unai |

Bigarren.- Bildo 5, S.Coop enpresari eta Tolosako 1 zbkia duen Jabetza Erregistroko erregistradoreari akordio honen berri ematea.

Segundo.- Dar traslado del presente acuerdo a la empresa Bildo, 5 S.Coop y al registrador del Registro de la Propiedad nº 1 de Tolosa.

## 4.- ORDAINKETARIK GABEKO BAIMENAK

Udal langileen ordezkariak diren Teresa Soto eta Andres Oyarbidek udaleteko langileen lanpostua erreserbatuz borondatezko eszedentzia erregularizatzeko aurkeztu duten

Vista la siguiente propuesta para regular la excedencia voluntaria con reserva del puesto de trabajo del personal del Ayuntamiento presentada por los representantes de los trabajadores Dña.

ondorengo proposamena ikusirik: | Teresa Soto y D. Andres Oyarbide:

*“**ESZEDENTZIAREN INGURUKO PROPOSAMENA**.*

**Egungo legediaren arabera eszedentzia hartzeko eskubidea bermatzen zaie langileei, baina lanpostuaren erreserba ziurtatu gabe, umeak zaintzeko ez bada.*
**Bestalde, posible da soldatarik gabeko baimena hartzea, baina hiru hilabetez soilik, Udal-Hitz hitzarmenean jasoa dagoen moduan.*
**Kontuan hartuta gai hau udal bakoitzean era ezberdinetan dagoela garatuta adostutako irizpideen arabera, adibidez: Tolosan bi urte gordetzen da lanpostua, Ibarran hiru, Leaburun urtebete...*
**Proposatzen dugu Anoetako Udaletxean lanpostua gordetzea eszedentzia eskatzen duten langile guztiei (laboralak zein funtzionarioak), eta eskubide hori soldatarik gabeko baimen bezala bideratzea, baldintza hauetan:*
**Langileak soldatarik gabeko baimena hartu baino gutxienez hilabete bat lehenago aurkeztu beharko du idatzizko eskaera.*
**Soldatarik gabeko baimena 3 urtekoa izango da gehienez (gutxiago eskatzen bada, luzapenak onartuko dira 3 urte bete arte), eta luzatzeko aukera egongo da 5 urte arte gehienez.*
**Luzapenak bideratu ahal izateko, baimenaren azken eguna baino 3 hilabete lehenago aurkeztu beharko du langileak luzatzeko eskaera.*
**Soldatarik gabeko baimenean igarotako denbora antzinatasunerako kontuan hartuko da.*
**Lanera bueltatzeari dagokionean, baimena bukatu eta hurrengo egunean hasi beharko du langileak lanean. Hala ez bada, behin-betiko galduko du lanpostua.*
**Baimenaren epea bukatu aurretik bueltatu nahi badu, orduan bueltatu baino 3 hilabete lehenago aurkeztu beharko du langileak idatzizko eskaera.*
**Soldatarik gabeko baimen batetik bestera 5 urte gutxienez pasa beharko dira (lanera bueltatutako egunetik hasita). Salbuespen egoera: ume jaio edo adoptatu berriak zaintzeko baimena. Kasu honetan urtebeteko epea pasatzea nahikoa izango da”.*

Ondoren, Alkate jaunak zera adierazten die bertaratutakoei:

“Eszedentziaren inguruan, pasa den uztailaren 3an ospaturiko bilkuran gaia aztertzeko geratu zitzaigun, ze kasutan, ze langile kopurua disfruta zezakeen batera, nola egin... horrelako zenbait gai. Harrez gero, langileen ordezkariek zenbait puntu erantsi dituzte. Hartzeko eskubidea langile guztiek izango dute eta lanpostua errespetatu. Eszedentziaren inguruan, udal bakoitzak gaia arautzeko akordioak hartzen ditu. Hemen proposatzen da eskatzen duten langile guztiei, laboralak naiz funtzionarioak, lanpostua gordetzea; honen inguruan araudi bat proposatzen da onestea. Aurre bileran izandako eztabaidan, besteak beste, azaldu zen plantilako zenbateko kopurua egon zitekeen eszedentzian. Langile ordezkarien aldetik esaten da, udaletxea funtzionatzen badu, oporrekin bezala interpretatzen dutela. Udaletxearen funtzionamenduari kalterik egiten ez dioen bitartean... normalean, pertsona batek eszedentzia eskatzen badu beste bat hartuko dute ordezkoa; hor ez dute ikusten beharrezko kantitate edo portzentai bat. Bitartean, hau mahai gainean utzi genuenez, liburutegiko arduradunari 3 hilabeteko baimena eman zaio eta hau onartuz gero, berak hiru urterako baimen hori sinatuko luke”.

Jose Ignacio Otermin jaunak zera galdetzen du:

*“Eskaera disfrutatzen hasi baino 3 hilabete lehen egin behar da eskaera. Udalak badu denbora ordezkoa bilatzeko”.*

Alkate jaunak zera erantzuten du:

*“Bai, liburuzainaren kasuan, uztailean eskatu zuen eszedentzia, irailean aukeratzeko mahaia elkartu eta ordezkoa aukeratzea erabaki zen; kontutan izanik abuztua tartean zegoela. Nahiko denbora izan da”.*

Fidel Azpiroz jaunak zera galdetzen du:

“Soldatarik gabeko baimenean igarotako denbora aintzinakotasunerako kontutan izango da? Hori nola formulatuta dago?

Udaleko Idazkariak zera erantzuten du:

“*Aurkezturiko eskaeraren erabera, ulertzen dut, antzinatasunerako ez dela kontutan hartuko eszedentzian pasako den denbora”.*

*Jose Ignacio Otermin jaunak zera galdetzen du*:

“*Horrela egin da beste lekuetan? Ez dakit logikoa den ala ez. Ez badu lanik egiten zergaitik kontatu behar zaio trienioa?”.*

Alkate jaunak zera erantzuten du:

*“Hori gure esku dago, besterik gabe. Nik bere horretan utziko nuke”.*

Fidel Azpiroz jaunak zera adierazten du:

*“Apunte bezala, nik jarriko nuke eszedentzia eskatzen duen pertsona kopurua ez dela kontutan izango beti ere udal funtzionamenduari kalterik egiten ez badio”.*

Partaideek aho batez erabakitzen dute lanpostua erreserbatuz borondatezko eszedentzia erregularitzatzeko ondorengo erizpideak onestea; ohartaraziz, eskaera bat baino gehiago suertatzen denean, baimena, udal zerbitzuei kalterik ez sortzearen baldintzapean geratuko dela.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos aprobar los siguientes criterios que regulan la excedencia voluntaria con reserva de puesto de trabajo, advirtiendo que cuando coincidan más de una solicitud, su concesión quedará condicionada a no causar perjuicio alguno al servicio municipal.

<u>ERIZPIDEAK/CRITERIOS</u>

Anoetako Udaletxean lanpostua gordetzea eszedentzia eskatzen duten langile guztiei (laboralak zein funtzionarioak), eta eskubide hori soldatarik gabeko baimen bezala bideratzea, baldintza hauetan:

1) Langileak soldatarik gabeko baimena hartu baino gutxienez hilabete bat lehenago aurkeztu beharko du idatzizko eskaera.

2) Soldatarik gabeko baimena 3 urtekoa izango da gehienez (gutxiago eskatzen bada, luzapenak onartuko dira 3 urte bete arte), eta luzatzeko aukera egongo da 5 urte arte gehienez.

3) Luzapenak bideratu ahal izateko, baimenaren azken eguna baino 3 hilabete lehenago aurkeztu beharko du langileak luzatzeko eskaera.

4)Soldatarik gabeko baimenean igarotako denbora antzinatasunerako kontuan hartuko da.

5) Lanera bueltatzeari dagokionean, baimena bukatu eta hurrengo egunean hasi beharko du langileak lanean. Hala ez bada, behin-betiko galduko du lanpostua.

6) Baimenaren epea bukatu aurretik bueltatu nahi badu, orduan bueltatu baino 3 hilabete lehenago aurkeztu beharko du langileak idatzizko eskaera.

7) Soldatarik gabeko baimen batetik bestera 5 urte gutxienez pasa beharko dira (lanera bueltatutako egunetik hasita). Salbuespen egoera: ume jaio edo adoptatu berriak zaintzeko baimena. Kasu honetan urtebeteko epea pasatzea nahikoa izango da.

## 5.- GEMA ERRONDOSORORE N BAIMENAREN BERRI EMATEA.

Liburutegiko arduraduna den Gema Errondosoro Otaegik aurkezturiko idazia ikusi ondoren.

2008ko uztailaren 30ean alkatetzaren ebazpena ikusirik, non, hiru ilabeterako, alegia, 2008ko irailaren 1etik abenduaen 31a bitarte, soldatarik gabeko baimena ematen den.

Lanpostua erreserbatuz borondatezko eszedentzia erregularitzatzeko erizpideak aurreko puntuan onetsi direla kontutan izanik; partaideek aho batez erabakitzen dute Gema Errondosoro Otaegi andreari hiru urterako 2008ko irailaren 1etik hasita (2009.09.1 / 2011.08.31) lanpostua erreserbatuz eszedentzia onestea, aurreko puntuan onetsiriko erizpideen baldintzapean.

Visto el escrito presentado por la responsable de la biblioteca municipal Dña. Gema Errondosoro Otaegi.

Vista la resolución de alcaldía de fecha 30 de julio de 2008 por el que se concede un permiso sin sueldo por un periodo de 3 meses, desde el 1 de septiembre al 31 de diciembre de 2008.

Teniendo en cuenta los criterios para la concesión de excedencia voluntaria con reserva de puesto de trabajo aprobados en la presente sesión, se acuerda por unanimidad de los reunidos conceder a la Sra. Gema Errondosoro Otaegi excedencia con reserva del puesto de trabajo por un periodo de tres años con efectos de 1 de septiembre de 2008 (1.09.08 /31.08.2011), en las condiciones señaladas en el referido acuerdo plenario.

## 6.- Mª DOLORES GOROSTIDI SOLDATARI BURUZKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA.

Udal eraikinen garbitzailea den Mª Dolores Gorostidi Olariaga andrearen espedientea ikusi ondoren.

Visto el expediente del trabajador de limpieza de edificios de este Ayuntamiento Dña. Mª Dolores Gorostidi Olariaga.

2008ko ekainaren 24ean Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak interesdunari idatzi bat bidali zion; bertan, 2008ko ekainaren 19ko dataz, gehienez ere 12 hilabeteko aldi baterako ezintasuna (ABE) amaitu zitzaiola jakinaraziz eta beste sei hilaberako luzapena ematea erabaki zutela adieraziz.

Visto el escrito remitido por la Secretaria de Estado de la Seguridad Social a la interesada, de fecha 24.06.08, por el que le comunican que habiendo agotado con fecha 19.06.08 la duración máxima de 12 meses de la incapacidad temporal (IT) que tiene reconocida, acuerdan reconocerle la prorroga por un plazo máximo de 6 meses.

Era berean jakinarazten zaio, ABEren ordainketa Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren bidez egingo zaiola 2008ko uztailaren 1etik aurrera ordainketa zuzena modalitatean.

Asimismo, se le comunica que el pago de IT se efectuará a partir del día 1 de julio de 2008, en la modalidad de pago directo a través del Instituto Nacional de la Seguridad Social.

Kontutan izanik, 6 hilabeteko epe horretan, Gizarte Segurantzak nominaren % 75ª ordainduko diola langileari eta enpresak, kasu honetan Udalak, Seguritate Sozialeko kotizazioak.

Resultando que durante el citado periodo de 6 meses, el INSS abonará a la trabajadora el 75% de la nómina y la empresa, en este caso el Ayuntamiento, las cotizaciones de alta a la Seguridad Social.

Udal langileei aplikatzen zaien lan-hitzarmenaren arabera, ABE egoeran dauden langileak ordainsarien %100ª kobratuko dute gehienez ere 6 hilabetetan, hauek pasa ondoren eta baxa irauten duen bitartean %80ª.

Visto que el convenio de aplicación al personal del ayuntamiento señala que los trabajadores en situación de IT percibirán una compensación económica hasta completar el 100% de las retribuciones hasta un máximo de 6 meses, transcurridos los cuales percibirán el 80% de las mismas hasta la finalización del periodo de baja.

2008ko uztailaren 29an alkatetzaren ebazpena ikusirik.

Vista la resolución de alcaldía de fecha 29 de julio de 2008.

Lanera bueltatzen den arte eta 2008ko uztailaren 1etik aurrera Udal langilea den Mª Dolores Gorostidi Olariaga andreari Gizarte Segurantzak ordaintzen dion nomina %100ªera osatu bitartean, diferentzi hori, udalak ordaintzea.

Se acuerda por unanimidad de los reunidos completar, a cargo del Ayuntamiento, hasta el 100% de la nómina abonada por el INSS a la trabajadora Dña. Mª Dolores Gorostidi Olariaga, hasta su incorporación al puesto de trabajo con efectos 1 de julio de 2008.

**7.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA GIPUZKOAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ESKUBIDE PUBLIKO SARREREN DIRUBILETA EXEKUTIBORAKO.**

Kontutan izanik gaurko egunez udal zerga-bilketan arazoak daudela exekutiba bidean zuzenbide publikoko sarrera gisa jaso behar diren zergak kobratzeko.

2004ko abuztuaren 30ean Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Kontseiluak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen arteko lankidetza hitzarmena onetsi zuen, honen bidez, udalak berezkoak dituen zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko.

Hitzarmen proposamena ikusi ondoren.

Udaletxeko AOT den Mª Jose Sánchez Plazak eginiko txostena ikusi ondoren.

Visto que a fecha de hoy, en la recaudación municipal hay dificultades para el cobro en periodo ejecutivo de los ingresos de derecho público propios.

Resultando que el Consejo de Diputados de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa en su sesión de fecha 30 de agosto de 2004, aprobó el modelo de Convenio de colaboración a suscribir entre la Exma. Diputación Foral de Gipuzkoa y cada ayuntamiento interesado, para la recaudación en ejecutiva de los ingresos de derecho público.

Vista la propuesta de Convenio.

Visto el informe emitido por la TAG del Ayuntamiento Dña. Mª Jose Sánchez Plaza.

Alkateak zera jakinarazten die bertaratutakoei:

*"Badakizue, zerbait kobratzeko zailtasuna dugunean bigarren jakinarazpen bat bidaltzen zaie errekargoekin. Gero guk egiten ditugu ahaleginak kobratzeko enbargo bidez eta hala ere batzuk kobratu gabe geratzen zaizkigu. Foru Aldundiaren dagoen akordio honen arabera, guk kobratu ezin ditugun horiek kobratzeko ahalegin bat egin dezakete beraiek. Izango litzateke komenio hau beraiekin sinatzea; guri ihes egiten zaizkigun horiek beraien bidez kobratzeko ea posibilitatea dagoen!".*

Jose Ignacio Oterminek galdetzen du:

*“Zalantza bakarra, exekutiba osoa pasatzen da edo udalak kobratu ezin dituenak bakarrik?”.*

Alkateak zera erantzuten dio:

*“Udalak kobratu ezin dituenak bakarrik bidaliko ditugu”.*

| | |
|---|---|
| Udalarentzak Hitzarmen honek dioena interesgarria dela kontutan izanik; partaideek aho batez erabaki dute: | Considerando de interés de este Ayuntamiento el contenido del citado Convenio; se acuerda por unanimidad de los reunidos: |
| Lehena.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2004ko abuztuaren 30ean onartutako lankidetza hitzarmena sinatzea. Hitzarmen horren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko du Udalaren zuzenbide publikoko sarrerak bide exekutiboan biltzeko ardura. (Hitzarmenaren kopia bat 1 eranskin bezala akta honi eransten zaio). | Primero.- Suscribir el convenio de colaboración aprobado por Acuerdo del Consejo de Diputados de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de 30 de agosto de 2004, por el que la Diputación foral de Gipuzkoa asume la recaudación ejecutiva de los ingresos de derecho público propios de este Ayuntamiento (copia de convenio que se adjunta como documento nº 1 a la presente acta). |
| Bigarren.- Alkate-lehendakariari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Anoetako Udalaren izenean eta ordezkaritzan sina dezan. | Segundo.- Facultar al Sr. Alcalde para suscribir dicho Convenio, en nombre y representación del Ayuntamiento de Anoeta. |
| Hirugarren .- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez. | Tercero.- Comunicar al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa este Acuerdo, mediante la certificación expedida del mismo. |

**8.- ZINEGOTZIEN ORDAINKETAK**

| | |
|---|---|
| “Hautetsien ordainketak” direla eta, 2007ko uztailaren 4ean udalbatzak harturiko akordioa ikusirik. | Visto el acuerdo adoptado por sesión plenaria de fecha 4 de julio de 2007, en relación a “Retribuciones a electos”. |

Alkate jaunak zera adierazten die bertaratutakoei:

*“Orain dela gutxi eman den ilegalizazio ebazpena dela eta lehen kobratzeko genituen asignazioak: taldeko eta zinegotzi bakoitzeko 50 euro orain ezin ditugu kobratu. Akordio hori bertan behera utzi beharko genuke. Ezin dugu kobratu gure taldea desegin delako. Dirudienez denak modu berdinean*

*kobratu behar dugu ezin da guk alde batera eta zuek talde politiko bezala beste modu batera. Retroaktibitatea ere ezin dugu aplikatu. Guk proposatu nahi genuena da urritik aurrera zinegotzi bakoitza batzordeta etortzeagatik 20 euro kobratzea eta komisio buru direnei 30 euro".*

| | |
|---|---|
| Alkate jaunaren proposamenaz, partaideek aho batez erabakitzen dute: | A propuesta del Sr. Alcalde se aprueba por unanimidad de los reunidos: |
| Lehena.- 2007ko uztailaren 4eko udalaren osoko bilkuran, "HAUTETSIEN ORDAINKETAK" buruz harturiko akordioaren 7.1 puntuko ondorengo a eta b atalak bertan behera uztea: | Primero.- Dejar sin efecto el acuerdo adoptado por el Pleno Municipal en sesión de fecha 4 de julio de 2007 en cuanto se refiere al punto 7.1.- "RETRIBUCIONES A ELECTOS" apartados a y b que dice como sigue: |
| a) Talde politikoei: 50 €/hilean<br>b) Zinegotzi bakoitzeko: 50€/hilean. | a) Por grupo político: 50 euros/mes<br>b) Por concejal: 50 euros/mes |
| Bigarren.- 2008ko urriaren 1etik aurrera, Udalbatzako talde organoetara bertaratzeagatik ondorengo zenbatekoak ezartzea: | Segundo.- Fijar las siguientes cuantias a percibir por la concurrencia a las sesiones de los órganos colegiados de la Corporación, con efectos de 1 de octubre de 2008: |
| Batzorde Informatiboak eta Osoko Bilkuran: 20 €. | Comisiones Informativas y Pleno Municipal: 20€. |
| Batzordeburu modura parte hartzeagatik: 30 €. | Asistencia en calidad de presidente: 30 €. |
| 1 0000.231.110.00.01 "Goi-karguen dietak lokomozioa eta leku aldaketa" partidaren kontura kontabilizatzena. | Se contabiliza con cargo a la partida del Presupuesto 1 0000.231.110.00.01 "Asistencia y dietas a órganos del Gobierno". |
| Bertaratutako saio bakoitzeko ordainketak egitea, dagokion ziurtagiriaren bidez egiaztatu ondoren. | El abono se realizará por la concurrencia efectiva a cada sesión, acreditándose la misma mediante el correspondiente certificado. |
| Lanaldi oso edo denbora partzialeko ordainsaria duten korporakideek ezin izango dute dirurik jaso Udalbatzako talde organoetara bertaratzeagatik. | Los Corporativos retribuidos con dedicación exclusiva o parcial no podrán percibir ninguna cantidad en concepto de asistencia por la concurrencia efectiva a las |

sesiones de los órganos colegiados de la Corporación.

## 9.- GALDE-ERREGUAK

Fidel Azpiroz jaunak zera galdetzen du:

*“2008 urteko aurrekontuak ez ditugu eta nola dauden jakitea gustatuko litzaiguke”.*

Alkate jaunak erantzuten dio:

“2008 urteko aurrekontuen zirriborroa aspaldi egin genuen, udara aurretik, orain zehaztasun handiagoarekin ibil gaitezke. Datorren astean bertan pasako zaizue zirriborroa eta hilabete honetan bertan aprobatuko ditugu”.

Fidel Azpiroz jaunak zera galdetzen du:

*“Akta honeta, 3 puntuan, babes ofizialeko jabeen zerrenda definitiboa onartu dugu, ondorengo babes ofizialeko etxebizitzak noizko izango diren argitzerik badago?”.*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*“Norbaitek egin nahiko ahal ditu orain dauden bezala gauzak?. Rairekin aldaketa batzuk egiten ari gara. Aste honetan Yereguirekin beste bilera bat dugu ditugun zalantzak konkretatzeko eta ondoren azalduko dizkizuegu. Zuek ostiral eguerdian nola ibiltzen zarete? Edo nahiago duzue astearte batean hirigintza batzorde batean?”.*

Fidel Azpiroz jaunak zera galdetzen du:

*“Atzo aurkezte genuen mozioaren harira, ezohiko plenoa zen eta ez genuen gehiago sakondu baina ikusita bertan behera geratu zela gure proposamena, aurrerantzean horrelakorik gertatu ez dic hori prozedimentatzea gustatuko litzaiguke. Gaur egun, ostegunetan plenoa dagoenean, astearteko bilerara etortzen garela aprobetxatzen dugu dokumentazioa hartzeko. Beraz ez dugu lantzeko denborarik. Horrelako gaiak daudenean, eskertuko genuke aurretik, horrela behar izanez gero, prestatzeko denbora izatea.*

Alkate jaunak erantzuten dio:

*“Zuek plenora aurkeztutako mozioa guk ere ez genuen inondik inora ezagutzen. Gero, irakurri ondoren, nabardurak izan zitezkeen horiek, zuek jarritako azken puntua, ez zait iruditzen nabardura denik eta gutxiago egia denik. Agian prezepzio kontua izango da”.*

Fidel Azpiroz jaunak erantzuten du:

*"Nik, prozedimentuari begira erreferentziatu nahi nuen, gaiak nola tratatu. Batipat, inolako gaizki ulerturik ez egotearren".*

Alkate jaunak erantzuten dio:

"*Ados, guk ere, ziur aski zuen proposamena aurreko egunean eduki izan begenu beste trataera bat emango genion. Zuek eskatzen duzuen hori, aldez aurretik gauzak jakite hori, guk ere jakin behar dugu".*

Eta beste aztergairik ezean, Alkate-Lehendakari Jaunak bilera amaitutzat jotzen du iluntzeko bederatziak hogeitabost gutxi direnean, eta neuk Idazkariak ziurtatzen dudalarik.

Y sin más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde-Presidente da por finalizada la sesión a las veinte horas treinta y cinco minutos, lo que yo, la Secretario certifico.